



RASSF-AREN ALERTAK ETA
JAKINARAZPENAK
2008ko 3. LAUHILEKOA


elika

Fundación Vasca para la
Seguridad Agroalimentaria

Nekazaritzako Elikagaien
Segurtasunarako
Euskal Fundazioa

2008ko 3. lauhilekoan zehar, Europako Informazio Azkarraren Sistemak (RASFF) elikagaien 1125 alerta eta jakinarazpen berri eman du. Jakinarazpen guztietatik, kutsadura iturriei dagozkien zenbatekoak honako hauek dira:

Identifikatutako arriskuak	Zenbatekoak
Mikotoxinak / biotoxinak	% 27
Kutsadura kimikoa	% 18
Kutsadura biologikoa	% 19
Metal astunak	% 6
Hondakinak	% 11,5
Migrazioak	% 7,5
Kutsadura fisikoa	% 4,5
Iruzurrak	% 5
Produktua gaizki kontrolatuta	% 1,5



Mikotoxinek eragindako kutsaduren artean, kasu gehienetan, % 86,5an, kutsadura **Aflatoxinek** eragindakoa da eta, horrelakoetan **kakahueteak** kutsaduren % 30 eragin du. Bestalde, kasu askotan (% 33) kakahuetea Txinatik zetorren. Bigarren produktu garrantzitsua **pistatxoa** izan da, aflatoxinek eragindako kutsaduren %22, eta kasuen % 38,5an jatorria Iran izan da.


Kutsadura biologikoei dagokienez, **Salmonella sp.k** kutsaduren % 57 eragin ditu. Kasuen % 6 **Salmonella enteritidis** espezieak eragin du eta **oilategiko-hegaztiak** kasuen % 86an hartu du parte. Haragiaren jatorria **europarra** izan da ia kasu guztietan (% 83). Kasuen % 12,5a **Salmonella typhimurium** espezieak eragin du, txerri-haragia %53an, eta jatorria europarra kasu guztietan (%100). Taldeko

protagonista *Salmonella* sp. izan da (kasuen % 81,5). Eta alerta gehien eragin dituztenak (% 67,5) oilategiko-hegaztiak izan dira, ia denak europarrak izanik (% 89) eta hauen atzean belar aromatikoak edo espezieak agertzen dira, %25,5ean eta Asiako jatorrikoak %96an.

Kutsadura kimikoari dagokionez, **Melamina** izan da eragile nagusi (kasuen % 26). Inplikaturako produktuak gailetak %46an eta goxokiak %26an izan dira, kasu guztietan (%100) Txina izanik jatorria.

Mikotoxinak	303	Aflatoxinak	262 (%86)	kakahueteak	79(%30)	Txina	26 (%33)
Biotoxinak				pistatxoak	57 (%22)	Iran	22 (%38,5)
Kutsadura biologikoa	211	<i>Salmonella</i> sp.	120 (%57)				
		<i>S.enteritidis</i>	7 (%6)	oilategiko hegazkiak	6 (%86)	Europa	5 (%83)
		<i>S.typhimurium</i>	15 (%12,5)	txerria	8 (%53)	Europa	8 (%100)
		<i>Salmonella</i> sp.	98 (%81,5)	oilategiko hegazkiak	66 (%67,5)	Europa	59(%89,5)
				belar aromatikoak, espeziak	25 (%25,5)	Asia	24 (%96)
Kutsadura kimikoa	205	Melamina	53(%26)	gailetak	23(%53,5)	Txina	23(%100)
				goxokiak	13(%30)	Txina	13(%100)

Kutsaturako produktuen jatorrizko herrialdeak hurrengoak izan dira:



Asiari dagokionez, kutsatzaileen % 30 Txinakoak dira, jarraian Turkia dugu: kasuen % 25. Europari dagokionez, jakinarazpen gehien sortzen duten herrialdeak Italia kasuen % 16 eta Espainia % 11 dira. Azkenik, Amerikaren kasuan AEB dira nabarmen jakinarazpen gehien sortzen dutenak (% 44,5).

AURREKO LAUHILEKOAREKIN ERKATZEA

Aurreko lauhilekoarekin erkatuz gero, ondorengo da azpimarratzekoa:

- Melaminaren agertzea alerta jakinarazpenetan, esnea osagai moduan duten produktuetan, gailera eta goxokietan gehien bat. Denen jatorria Txina izan da.
- *Salmonella* espezieak eragindako kasuen gehitzea, % 48tik % 57era, gehinetan inplikaturiko produktua oilategiko - hegaztia izanda eta gero, belar aromatikoak edo espezieak.
- Mikotoxinen alerta eta jakinarazpenen murriztea, %32,5tik % 27ra pasatuz.